Katazka

Alpino Tabira
mendizale taldea

ZB. 146 • 1 • 2006

GRAFICAS AMOREBIETA

B.º Ibarra, Polígono Cóndor I - 48340 AMOREBIETA (Bizkaia)

graficasamorebieta.com WWW

amorebieta@graficasamorebieta.com e-mail

IMPRESIÓN BAJO DEMANDA
Desde 1 ejemplar hasta .....

- Tarjetas
- Facturas
- Cartas
- Sobres
- Carpetas
- Cartelería
- Folletos
- Catálogos
- Revistas
- Libros

.....

94 673 03 39

94 673 41 78

Katazka

ZB. 146 • 1 - 2006

Arduraduna:
Alberto Diez - Iratxe Urizar

Argazkia:
"Ama Dablan" Jaime Alonso

Kolaboratzaileak:
Joserra Basaguren, Ina Oleaga, Arri, Jose Miguel, J. M. Uriarte, Samuel, Javi Mateo, Zengo, Eneko Olea

Argitaratzailea:
Alpino TABIRA
Mendizale Taldea

Diseinua ta Fotomekanika,
Fotokonposizioa
eta Imprimatzailea:
GRAFICAS AMOREBIETA
94 673 03 39

Aleak:
2.000 (Dohainik)

Legezko Gordailua:
BI-2598-89

Alpino Tabira
mendizale taldea

Apartado 141
Goienkalea, 9
Tel.: 94 620 31 53
Fax: 94 620 31 53
48200 DURANGO
www.alpino-tabira.org
idazkaritza@alpino-tabira.org
secretaria@alpino-tabira.org
katazka@alpino-tabira.org

DURANGO
Udala · Ayuntamiento

Oiz Menditik

1026 metroko Oiz mendia ez da mendizale askoren gogokoa. Batzuen arabera zatarra da, erliebe esanguratsurik gabekoa; aspalditik antenez eta pistez beterikoa. Beste askoren iritziz, hurbiltzeko bideak ez dira politak: porlan pistak, kotxeak, pinudiz beteriko inguru monotonoa... Egoera hori biribeltzeko, haize-sorgailuek eta eurekin lotutako pista berriek Oizen itxura zeharo aldatu dute. Egia da ez dena oso erakargarria, baina, nire ustez, mendi honek baditu bere bitxikeriak zein gune interesgarriak eta horietaz arituko naiz hurrengo lerroetan .

Oiz mendiak Ibaizabal bailara ixten du iparraldetik. Geologikoki Anboto mendizerra baino gazteagoa da, Tertziario arokoa, eta, mende askotan, bere hareharria eraikuntzarako erabili da. Oso kokaleku estrategikoa dauka eta horregatik, aintzinean, Gernikako Batzarrak egiten zirenean, bere puntatik deiadar egiten zen inguruko herrien ordezkariei abisatzeko.

Ibilbide ezagunak

Ez dakit ibilbideak aipatzea merezi duen eta are gutxiago deskribatzea. Dena dela, hauxe dituzue erabilienak: Garai herritik irtetzen den errepidetik (ahaztuko ditut beste bide korapilatsu batzuk) sei edo zazpi kilometro geroagoko bidegurutze batean aukera eskaintzen digu San Kristobal baselizatik edo Kurutzebarri aldetik joateko. Bigarren bide honek, bidegurutzetik hurbil, ehiztarien txabola ondotik, beste igoera bat dauka: antenetara doazen elektrizitate zutoinak jarraituz gero, puntaraino azkar eramaten gaituena. Beste igoera bat Zengotita auzotik irteten da; Zengotitagana (812 m.) eta Kurutzebarri ondotik pasatzen da, eta handik, haize-sorgailuen burrunbadaz inguraturik, tontorrera heltzen da.

Esan bezala, Oizek alde onak edo kontuan hartzekoak baditu. Nire aburuz, mendi honetatik gehien erakarri nauena, betidanik, bere tontorretik goza dezakegun ikuspegia izan da. Egurats garbiarekin, Pirinioetatik Lunadaraino eta itsasotik Errioxako San Lorenzo mendiraino paisaia zabala ikus dezakegu. Benetan zoragarria da nola bereizten diren inguruko eskualdeak, inguruko mendi guztiak... Geografia ikasteko lekurik ezin hobea da.

Antzinako monumentuak

Orain dela 3000 urte, Neolitiko garaian, mendi hau, gizakiaren ekimenaren lekukoa izan zen, abereekin han-hemenka ibiltzen zenean. Jose Miguel Barandiaranek, XX. mendearen hasieran, garai hartako aztarna batzuk topatu zituen: trikuharriak, artzainen hilobiak. Penagarria da, baina irudimena behar da Oizko monumentu hauek trikuharriak direla jakiteko, ez dutelako betetzen "megalito" hitzaren esanahia. Oizen topatu direnak, tontor itxurako harri multzo batzuk baino ez dira. Beren ondotik pasatuz gero, ez ginateke konturatuko, ez bada haien ondoan ipinita dauden kartelei esker. Hobeto bereizten dena Iturzurigaña trikuharria da, pinudi batean, Kurutzebarritik eta Artibai mendi taldearen aterpetik hurbil. Horra hor argazkia. Beste trikuharri batzuen artean, honako hauek aipatu daitezke: Probazelaiburu I eta II, Ipiñarrieta eta Ama Birjinen Baso.

Handik nahiko hurbil, Oizeko hegoekialdeko maldan eta Losa Kantereta inguruan, abeltzantzarekin erlazionatutako eraikin bereziak ikusiko ditugu: ganga faltsuko etxolak. Eraikin hauek argamasa gabeko hareharriz eginda daude. Base zirkularra dute eta harriak bata bestearen gainean kokatuta daude sabaia itxi arte. Lau metroko diametro daukate eta bi metroko altuera. Hormek metro bateko lodiera dute dinteladun ate txiki batekin. Bi etxola daude egoera onean, bata bestetik 300 metrora, beste etxolen aztarnez inguraturik. Hirugarren etxola bat Oiz tontorretik hurbil dago, azken haizesorgailuen ondoan, baina ez da besteak bezain ikusgarria.

Etxola hauei buruz ez dakigu ia ezer, haien inguruan indusketarik edo ikerketa berezirik ez delako egin. Antzeko etxolak daude penintsulako lurralde ezberdinetan, "chozos" izenarekin. Errioxakoei, modernoagoak direnak, "guardaviñas" deitzen diete. Esan dugu, jatorriz, artzainen babeslekua izango zirela, baina, etxola hauen inguruan topatu diren harri landuengatik, pentsa dezakegu, beranduago harginek erabili zituztela haien jardueraren lehengaiatik hurbil egoteko.

Beste gune interesgarri bat ekialdeko maldan daukagu: Kurutzebarri gurutzea. Nahiz eta tontorra ez izan, buzoia dauka. Gurutzearen oinaren, harrian idatzia, ia

irakurri ezin daitekeen inskripzioak azaltzen digu gurutze honen arrazoia: "Los señores D. Francisco Manuel y D. Juan Bautista Astarloa, hermanos, Presbítero y Tonsurado, respectivamente, y D. Juan Bautista de Madariaga, su tío. Fallecieron el 14 de febrero de 1810". Izan ere, heriotzaren ziurtagirian jartzen du "torbellino e intemperie"-en ondorioz hil zirela leku horretan. Dirudienez, Berriztik Bolibarrera frantsesengandik ihesi zihoazenean; bisuts batean harrapatuta galdu zuten bizitza.

Bukatzeko, eta Oizera joateko aitzakia moduan, aipatu, uztailaren 10aren hurrengo domekan San Kristobal jaia ospatzen dela. Azken guda zibilaren aurretik oso jai entzutetsua izan zen; inguruko herrietako erromes ugari joaten ziren San Kristobal baselizara eguna ospatzera; txosnak jartzen ziren, txarangek eguna alaitzen zuten eta feriako argazkilariek erromesen argazkiak ateratzen zituzten. Ohitura zahar hau oraindino mantentzen da.

Jose Mª Uriarte Astarloa

José María Urquizu

Un amigo para los socios veteranos, un desconocido para los jóvenes. Para el club, un socio que aportó buena parte de su tiempo en nuestro beneficio.

Tesorero durante el año 1959, vicepresidente en el 61, vocal en el 63 y el 64, y vicepresidente en el 65. Se presentó en dos ocasiones a presidente, junto con otros, no logrando sustituir a Sabino Urnieta, que lideró el club durante más de veinte años. Su relación con Sabino era buena, ya que, además de estar juntos en la directiva, Josemari propuso a Sabino ante la Federación Española de Montaña para que se le concedieses la medalla de oro. Cuando definitivamente deja la directiva, se le llama a participar en algunas reuniones como consejero.

Representó al club en numerosas ocasiones. Entre otras, en la reunión de la Federación Vasca en Arrate, en la de clubes de la zona de Bilbao, y en el Campamento Internacional en Picos de Europa.

En los años sesenta, cuando las vías de comunicación y las aproximaciones a las montañas no eran como ahora, ascendió entre otros al Tesorero, Horcados Rojos, Pico Santa Ana, Peña Vieja, Coriscao, Peña Francia, Umión, Garmo Negro, Tuc de la Llanca... y por supuesto a todos los montes de nuestro entorno, además de participar en las marchas reguladas y en culminar el concurso de centenarios. Su afición la contagio a sus hijos, de tal forma que Luis Horacio culminó el concurso de los cien montes con seis años, Josemari a los siete años, y Javier a los ocho.

Algunas de sus propuestas fueron: que los concursos de alta montaña pasasen de 7 a 12 los montes a realizar, la colocación de teléfono en la sede social, y la inclusión de tres montes nuevos en el catálogo de los cien.

Cuando se intentaba construir un refugio en Zabalandi consiguió mil ladrillos, también cinco mil pesetas de los años sesenta si se reparaba la fuente de Mugarrikolanda, y estuvo encargado del arreglo de la fuente de Asuntze. Por su mediación los socios podían hacer el servicio militar en la escuela militar de Jaca, en unidades de esquí o de escalada. Los mapas catastrales, tan difíciles de obtener en la época, conseguía comprarlos, y era el intermediario para traer películas de montaña de Francia, Italia y Suiza.

Habíamos cambiado muchas veces de local, pero nunca en propiedad. Su ilusión era hacernos con uno. En 1959 se estaba construyendo la casa social; entonces, convocado por el sacerdote D. Francisco Santamaría, acude a una reunión en la que se ofrece al Alpino un local de 20 metros cuadrados. El sueño no se hace realidad. Pasan tres años y se realiza una construcción en Goienkalea, en donde está nuestro bar. La directiva le da plenos poderes para tratar con el constructor, y él se ofrece para gestionar el crédito con el banco. El 13 de febrero de 1964 se hace la primera reunión en nuestro local, que en esa primera fase tenía 90 metros cuadrados. Los socios habían realizado su sueño.

Iñaki Oleaga.

fiesta del Club en Urkiola; J.M. Urquizu es el que está recibiendo el trofeo.

ATXARTEE

Eskalatzaileentzako berri ona!

Durangoko Alpino Tabira Mendizale elkarteko Joserra Basagurenek eta Lemoako Ganzabal Mendizale elkarteko Eneko Etxebarriak Atxarteko hormetan dagoen **"La Golos"** eskalada bidea berreskuratu dute.

Ibilbide hau 1962an igo zuten estreinako aldiz lau eskalatzailek: bata durangarra zen, bestea bilbotarra; beste biak Leon aldekoak.

Bidearen egoera tamalgarriagatik, azken aspaldian ez zen bertatik eskaladarik egiten.

Bere sasoian interes handikoa izanik, Joserra eta Enekori bidea berreskuratzea bururatu zitzaien.

Hainbat egunetan zehar lau eta zortzi ordu artean lanean aritu ondoren, azaroaren batean bidea konpontzen bukatu zuten. Guztira hogeita hamar ordu eman zituzten bidea errekuperatzen.

Horma bertikaletik jaitsitakoan, asfaltotik ibiltzea arrotz egiten omen zitzaien.

Bertan instalatutako segurtasun materiala altzairu herdoilgaitzeko parabolt modelokoa da; 38 unitate, guztiak ere behar-beharrezkoak. Eta hala ere ibilbideak jatorrian zuen xarma gordetzen du, erabiltzen diren seguruetako asko hasierakoak baitira.

Eskalada bideak 140 metroko luzera dauka eta harrobiaren atzealdean, goialdean, dagoen horman dago, Labargorri izenez ezaguna.

Hauexek dira eskalada bidearen zailtasunak: A1 – A2 – V eta 6Ako pasabidea (derrigorrezkoa), kobatik irtetean, hirugarren tartean. Soka lau alditan tiratuz egin daiteke.

- labargorri -

Gaur egun oso bide gomendagarria da, haizea handiko egunetan izan ezik, eskalatzaileek arazoak izan baititzakete, sokekin kateatu... gainera eta haize boladek eskalatzaileek oreka galtzea sortu dezakete.

Oharra: Bidea berreskuratzeko lanetan, haize bolada baten ondorioz, 100 metro soka kateatu ziren eta bertan abandonatu behar izan zituzten. Sokok hormaren goiko aldean zeuden, eta batzeko zailtasunak zituztenez, Ertzaintzaren Mendiko Brigadari jakinarazi zitzaion eta beraiek batu zituzten. Eskertzekoa da segurtasuna bermatzeko Ertzaintzak egindako lana, sokok eskalatzaileentzako arriskutsuak baitziren

Mila Esker

En 1960 se repara la vía "GOLOS", en la foto se puede apreciar el burilador utilizado.

Material deteriorado extraido en 2005

Material actual instalado en la vía "GOLOS"

SEMANA SANTA 2006

Este año no ha habido suerte y la salida prevista en un principio a Albarracín ha tenido que ser pospuesta para otro año. Afortunadamente había alternativas muy dignas, y se ha optado por una zona con la que teníamos alguna "cuenta pendiente": la sierra de Madrid.

Cuando uno oye hablar del Sistema Central lo primero que nos viene a la memoria es Gredos. Sin embargo hay muchas otras sierras y macizos que constituyen esta cadena montañosa, que divide la península por la mitad. Una de ellas es la sierra de Guadarrama.

La sierra de Guadarrama separa las provincias de Segovia y Madrid en un recorrido que comienza en el alto de Somosierra y termina en el alto de los Leones, siguiendo una trayectoria NE-SO. Cuando viajamos hacia Madrid se divisa al sur como una gran muralla que emerge de la llanura castellana. Hay varios cordales que se ramifican a partir de un nudo central que podríamos situar en el Puerto de Navacerrada. El primero de ellos (el más largo) comienza en el Puerto de Cotos y termina en Somosierra, manteniendo una altitud siempre por encima de 1800 metros. Las cumbres más destacadas son: Reajo Alto (2106), El Nevero (2209) y Peñalara (2430), esta última constituye la máxima altura del macizo y se levanta sobre una plataforma de origen glaciar sembrada de lagunas. Su emplazamiento singular y el alto valor de los ecosistemas allí existentes además de su fragilidad llevaron a catalogar este paraje como parque natural.

El segundo ramal lo constituye la Cuerda Larga, que parte del Puerto de Navacerrada en dirección Este. La primera elevación es el alto de Las Guarramillas (2262), conocido popularmente como "La Bola del Mundo", a partir de ahí nunca baja de los 2000 metros hasta el puerto de La Morcuera, siendo su mayor altitud Cabezas de Hierro (2380). La sierra sigue a partir de aquí por el Mondalindo (1838) y finaliza en la Sierra de la Cabrera (1564), por donde cruza la N-1.

En la vertiente sur de la Cuerda Larga destaca el paraje de La Pedriza. Sin lugar a dudas uno de los paisajes más insólitos de La Península. En La Pedriza se dan cita las rocas más singulares, bautizadas con originales nombres semejando curiosas formas. Perfiles que contrastan con recoletas praderas y los diferentes ríos y arroyos que corren por sus venas. Centro clásico del excursionismo madrileño, este pedazo de tierra, encuadrado dentro del Parque Regional de la Cuenca Alta del Manzanares, declarado Reserva de la Biosfera por la UNESCO, cuenta con frondosa vegetación en sus profundidades para terminar con una desnudez asombrosa en las cumbres. Todo un recorrido surcado por decenas de senderos. Las Torres de la Pedriza (2030) constituyen la atalaya principal de este entorno laberíntico, sin embargo su cumbre más emblemática es El Yelmo (1717), una gran mole granítica, visible desde Madrid. Su pared sur se eleva 150 metros sobre las praderas circundantes, haciendo las delicias de los escaladores. Afortunadamente tiene su punto débil, una trepada "graciosa" y nada expuesta en la que habrá que estar "fino" para poder pasar.

Kataxka

Por último y en dirección oeste parte hacia tierras segovianas el tercer ramal. Primero la cumbre granítica de Siete Picos (2138), después el puerto de la Fonfría, por donde cruza una antigua calzada romana, así se llega al Montón de Trigo (2154), donde se enlaza con el cordal de La Mujer Muerta. Se llama así porque contemplado desde Segovia se asemeja a una mujer yacente: La Pinareja (2194) sería la cabeza, el Oso (2196) el pecho y el pico del Pasapán los pies. Cuenta la leyenda que cuando Hércules vino a fundar la ciudad de Segovia, lo acompañó Apolo, el cual dio en enamorarse de una princesa serrana a la que su padre, el celoso rey, prefirió estrangular con sus manos antes que verla gozar en las del dios. Y allí fue que Apolo, para nunca olvidarla, pidió a Hércules que tallara la figura de la difunta en la cresta del Guadarrama.

Todo el piedemonte de la serranía está poblado por rebollares, el pino albar por su parte ocupa las laderas más altas, llegando hasta cotas de 2000-2100 metros. Los frondosos bosques están salpicados de praderas, y no es difícil encontrar manantiales, a poco que nos apartemos del eje de los cordales, especialmente en primavera.

El hecho de encontrarse tan cerca de Madrid, implica que haya zonas ciertamente masificadas, sobre todo los fines de semana. Además está muy bien comunicada con la capital, (hasta el puerto de Navacerrada se puede llegar en tren y autobús). Ello ha obligado a la administración ha tomar medidas, para proteger ciertos entornos más delicados. No obstante uno contempla con preocupación como el "boom" urbanístico ha llegado ya a ciertas áreas como el valle de Cercedilla.

Por último hay otra sierra de Madrid, conocida como "La Sierra Pobre". Ello es así porque hasta hace pocos años constituía un medio rural con pocas infraestructuras, siendo el turismo más bien escaso y de carácter alternativo. Es la zona comprendida al este de Somosierra, en los límites de Madrid y Guadalajara. Comprende la sierra de Ayllón, siendo sus cumbres más destacables: el Pico del Lobo (2272), techo de Guadalajara y el Cebollera Vieja (2129), también llamado Tres Provincias, por confluir en su vértice las provincias de Segovia, Guadalajara y Madrid. Más al sur queda el Ocejón (2048), conocido popularmente como el Cervino de Guadalajara. Algunos de sus pueblos quedaron deshabitados y recientemente los han recuperado, siendo algunos de ellos auténticos museos etnográficos. También son de destacar dos bosques relícticos: el hayedo de Montejo y el hayedo de Tejera Negra, ambos protegidos, que constituyen los hayedos más meridionales de Europa.

Bien, pues este es el plan "alternativo" para esta Semana Santa. En estas fechas encontraremos nieve seguro, sin embargo prescindiremos de llevar los "hierros", con unos bastones será suficiente. La ropa de abrigo imprescindible, y si no que se lo pregunten a algunos... Seamos optimistas y pensemos que este año no tendremos que echar mano de la épica para completar las excursiones.

Mila Izarreko Hotela *(Alcañiz – Escarra)*

2005eko uztaila

Sarritan mendizaleok, eguneroko bizitzaren betebeharretatik ihes egin eta egun lasai batzuk pasatzeko asmotan joaten gara tontorretarantz. Hala ere, aukeratutako tokiaren arabera, bilatutako lasaitasun hori, jendez leporaino dagoen aterpetxe zaratatsu batek ezerezean utzi dezake. Behin baino gehiagotan gertatu izan zait hau batik bat Perineoetako mendi "klasikoen" oinetan aurkitzen diren aterpetxeetan. Adibide batzuk ematearren hor dauzkagu Monte Perdidoko Goriz eta Anetoko Renclusa. Erreza da Goriz inguruko zelaietan 100 dendatik gora aurkitzea eta kanpoan era guztietako jendea, baloiarekin jolasten ari den koadrilatik hasita, eskaladako kordekin sokasaltoan dabilen bikoteraino. Egia esan honako egoera hau geuk sortu dugu, azkenaldian mendira joatea modan dagoen kirola delako eta aipatutako "klasiko" hauek bakoitzaren lorpenen zerrendan izatea ezinbestekoa dela kontsideratzen dugulako.

Masifikazio hauetatik aldentzeko, Alpino Tabirak urtero antolatzen du irteera bat. Bakoitzak ustez beharrezko izango dituen gauzak motxilan kargatu eta aterpetxeetako erosotasunetatik at asteburu bikain bat pasatzeko aukera izaten du. 2005eko uztaileko irteera Canfranc inguruko mendietara zen, hain zuzen bertan dagoen Ip-eko zirkurantz Pala Alcañiz eta Punta Escarra tontorrak igotzeko asmoarekin.

Asteburu ona zegoen aurreikusia klimatologiari zegokionez, are hobeto, nahiz eta gauez euriaren beldur ez izan antolatzaileek gordeleku bikain bat baitzeukaten prestatuta harantz joan ginen 23 pertsonentzat. Autobusa Canfranc-era heldu baino arinago dagoen zubi baten alboan geratu zen. Motxilak lepoan eskegi, erreka zeharkatzen zuen zubia igaro eta Ip-eko urtegira doan bideari ekin genion bertaraino bi orduko ibilbidea geneukala jakinik. Eguneko asmoa Pala Alcañiz igotzea zen.

Maldatsu hasi zen igoera, zuhaizti baten azpitik hasi eta ongi zehazturiko bide batetik egiten zuen gora. Gure parean geneukan hormak itzaletan mantentzen gintuen baina laster azalduko ginen eguzkitara, altura hartzea baino ez zen behar horretarako. Bizkor gindoazen metroak irabazten eta zenbat eta gorago joan aldapa lauagoa bihurtzen zihoan. Ordu bateko bidea eginikoan eguzkitan geunden jadanik eta hasieran mendiarte estu batetik zihoan bidea, bailara zabal batetara pasatu zen. Eskumatara Collaradaren iparreko hormak genituen eta aurrez aurre Ip-eko zirkuaren ataria. Oinez hasi ginenetik ordu bitara Ip-eko urtegira heldu ginen izen berdina duen zirkoaren oinetan dagoena. Hara non aurkitu genuen gauez gure "hotela" izango zena.


Ip-eko zirkurantz


Laino amilla, atzean Lecherines

Atsedena Ip-eko lakuaren aurrean


Gaua igaro genuen "hotela"

Aitzinako langileek, urtegia egiten zebiltzala eraiki zuten eraikuntza da honako hau. Bere tamainagatik imajina dezakegu garai batean hemen izan zen mugimendua. 4 pisu eta hainbeste metroko oina duen eraikuntza, negurako galdara eta guzti ekipatua zegoena. Gaur egun utzita dago nahiz eta Aragoiko gobernuaren jabegoa izan, hala adierazten du behintzat horma batean eskegita dagoen plaka batek. Guk gau baterako babesleku bezala erabiliko genuen soilik, eta oraindik ibilbide luzea genuenez aurretik, pisua arindu genuen bakoitzak tontorrerako bidean beharko ez zituen gauzak bertan utziz.

Eraikinetik gertu zegoen iturrian ura kargatu, trago bat jo eta bideari ekin genion urtegia bere eskuineko ertzetik inguratuz. Parez pare geneukan Pala Alcañiz nahiz eta ustekabeko laino batek aldizka ezkutatzen zuen.

Urtegia atzean utzi eta aldapa gora jarraitu genuen Alcañiz-en mendebaldeko hormarantz. Nahiko bizkor heldu ginen horma nagusiaren azpian dagoen harritzara. Berau eskuin aldetik igo genuen, pausu onez, ez baitzuen zailtasunik aurkezten harriak nahiko finkatuta zeudelako. Harritzaren bukaeran eskuinera egin beharra zegoen hormaren goialdeko aldera igoko gintuen kanaltxo bat igotzeko. Nahiko desnibel aurkezten zuen kanal honek eta nahiz eta teknikoki inongo zailtasunik ez eduki, kontuz joan beharra zegoen aurrekoek askatu zitzaketen harriei so eginez eta norberaren pausuak neurtuz atzean zihoazenei ezer ez botatzeko.

Alcañiz-en kanalaren hasiera

Collarada Alcañiz-etik

Punta Escarra Alcañiz-etik

Kanalaren azkeneko metroetatik begirada atzera bota eta Ip-eko urtegiaren ikuspegia txikituz zihoala ikusi genuen, altuera irabazten geundenaren seinale. Goialdera heltzerakoan zirkua inguratzen duten mendiek mendebalderantz daukaten isurialdea zegoen ikusgai, eskumatara Cuchillares izeneko agindi zorrotza eta ezkerretara aldiz guk jarraitu beharreko bidea. Eskuak erabili beharreko pasabide erraz batzuk igaro eta gero Alcañiz-en goialdeko gandorrean geunden. Gandor bezala adierazi dut baina berez harriartetik eta bide eroso bat jarraituz doan gailurrerako bidea da honako tarte hau. Alde bietarako ikuspegiak eskaintzen dizkigu eta ordu erdiko lana exijitzen du tontorraren 2763 metroak menderatzeko (4:45 h guztira) . Goian giro ona zegoen nahiz eta laino batzuk azaldu ziren giroa freskatu eta han goian denbora larregi ez genuela egingo pentsarazi zigutenak. Beheranzko bideari ekin aurretik, taldekide batek itsas barraskiloen fosilak zeuzkan harri losa bat topatu zuen, orain 2700metroko garaieran dagoena behinola itsas hondoa izan zenaren adierazle. Motxilak lepora kargatu eta itzulerako bideari ekin genion. Bidean taldekide batzuk Cuchillares-eko lehen tontorra igotzea erabaki zuten. Besteok beherantz segi genuen jakinik goranzkoan igotako kanala jaitsi beharra zegoela eta jendetza pilatu aurretik komeniko zela berau zeharkatzea batik bat harri erauntsien arriskua ekiditeko. Geroago Cuchillares-etara joan zirenek adierazi zutenez bertara zeraman bidea nahiko harri txarrez zegoen osatua eta bere "emozioa" ematen ziola esan ziguten. Beste taldekide batzuk Alcañiz-eko gandor erdialdean azaltzen den beheranzko beste bide bat hautatu zuten. Esandakoagatik ia denok jaitsitako kanala baino egoera hobean zegoen harriak askatzeko arriskuari zegokionez behintzat. Gutxika gutxika eta bakoitzak bere erritmoari jarraituz beheranzko bideari ekin genion, urtegia honako honetan bere ezkerreko ertzetik inguratuz. Goizean egindako bidearekin bira osoa eman genion urtegiari eta Ip-eko zirkuaren inguruan eskaintzen dituen ikuspegi desberdinak dastatu genituen.

Ordu pare bat behar izan genituen tontorretik gaua igaroko genuen babeslekuraino jaisteko. Behin denok elkartutakoan arratsaldeko laurak izango ziren eta eguraldi paregabea zegoenez gauerako ziren esterillak atera eta etxe parean zegoen zelaian etzan ginen eguzki epeletan. Orduak pasa ahala mendebaldetik beherantz zihoan eguzkiak urre kolorez argitzen zuen egun hartan igotako Pala Alcañiz-en horma. Argazki batzuk ateratzeko aprobetxatu genuen unea eta segidan afaria gertatzeko gauzak atera eta antolatzen hasi ginen, egin beharrekoak eguzki argitan egiteko. Goizean autobusa uztean motxilen pisuak eragindako kexa oihuak orain esker oneko berba bihurtu ziren, han baitzeuden besteak beste motxilatan banaturik igotako ardo botilak, gazta, solomo, txorizo eta likoreak. Edozein soziedadetan afari duin bat egiteko generoa geneukan. Escarratik zetozen aragoar artzain bat eta bere lagunak harriduraz begiratu gintuzten esanez "zuek bai dakizuela zer den ona zuek!". Bakoitzak bere afaria prestatzeari ekin zion giro paregabean, goizean pisu gehiago igo zuenak orain izango zuen bere saria afari bereziago batetaz gozatzeko!

Gaua gaineratuz zihoan eta "ohera" joateko ordua ere bai, hurrengo egunean goizeko ordu txikitan abiatzeko ustea geneukan eta horretarako goiz lotara joatea komeni zen. Eraikin guzti hartan bakoitzak nahi zuen tokian jarri zezakeen bere logela partikularra, batzuk sarreran bertan instalatzea erabaki zuten, beste batzuk goialdeko pisuetara joatea erabaki genuen haize korronteetatik ihes egineko gehienbat. Lurra pixka bat atondu, eskaiola zatiak eta abarrekoak alde batera egin eta esterilla eta zakua bota genituen lurrera. Frontalen bidez inguruak argituz atondu genituen azkeneko gauzak eta jadanik kanpoan izarrak ikusten zirelarik esan genion elkarri gabon. Gauez buelta batzuk eman genituen, nik behintzat bai. Onartu beharra dago lur-gainean ez dela ohean bezala lo egiten baina gau txarragoak pasatu izan ditut aterpetxeetan, koltxoi baten gainean bai baina inguruko norbaiten zurrungek izorratuta!

Biharamunean bikain argitu zuen egunak, eguzkia distiratsu eta nahiko epel goizeko ordu txikiak izateko. Aurrerantzean beroak gogotik estutu behar zuela ematen zuen. Gosaldu eta motxilak prestatu genituen zakuak eta abarrekoak eraikinean bertan utziz jakin bagenekielako Escarra igo eta itzulerako bidea bertatik igarotzen zela, beraz ez zegoen zertan pisu guztia norberarekin eraman. Goizeko zortziak emateke zeudela abiatu ginen Punta Escarrarantz. Aurreko eguneko nekeak nabaritu genituen baina gorputza berotuz zihoan heinean nekeak gutxituz joan ziren. Txango laburra zen aurretik geneukana eta oinez hasi eta ordu bat igarotakoan Escarraren piramidearen azpitaldera heldu ginen. Bertara heltzeko Ip-eko Palaren oinetik mendebalderantz zuzendu ginen altuera irabaziz gutxika-gutxika, hasieran belardi batzuetatik eta gero harritza batetik.


Pala Alcañiz eta Cuchillares

Afaria prestatzen


Punta Escarra

Escarraren azken piramidea azpitaldetik ikustean batek baino gehiagok luzatu zion galdera bere buruari "nondik igo daiteke hau?". Parez pare aldapa gogorra eta eskuak erabili beharra geneukala ikusita, batzuk motxilak bertan uztea erabaki zuten jateko zerbait eta ura hartzen zela ziurtatuz. Piramidearen zorroztasunak eragindako eguzki izpien itzaletik ekin genion goranzko bideari hasieran zig-zag erako bide arrasto bati segiz, jarraian jadanik eskuak erabili behar ziren tartera pasatuz. Bertikalitatea irabaziz zihoan bidea, itxuraz ematen zuena baino errazagoa zen ordea. Atzera begiratu eta laino tartetik azaltzen zen Midi D'ossauren dorrea, gure oinetan bestalde Formigal-eko bailara geneukan. Azkeneko esfortzu bat egin eta hamar minuturen bueltan bukatu genuen tontorrera ginderamatzan trepadatxoa (2h 15. 2760m).

Poltsikora hartutako barrita edo fruitu lehorrak jan, argazkiak atera eta denboratxo bat egin genuen Punta Escarraren tontorrean eguraldiak hala merezi zuen eta. Tontorretik behera ordu t'erdi inguruko txangoa baino ez geneukan. Berriz aterpetxera heldu ginenerako eguerdia pasatxo izango zen, motxilak prestatu eta bazkaldu egin genuen eta bukatzerakoan autobusak itxaroten gintuen tokirantz abiatu ginen bero astun baten azpian. Denon burutan zegoen behera heltzerakoan bide alboko errekan hartuko genuen freskaldia. Hara heltzerakoan adoretsuenak arropak erantzi eta erreka barrura sartu ziren buruz behera, hozkirriagoak garenok ordea hankak eta kokota freskatuz konformatu ginen ura hotza zetorren eta. Gauzak batu eta autobusera sartu ginen, ia txoferrak ze pelikula jarriko zuen galdezka. Batzuk erdi lo beste batzuk pantailari adi, zortziak aldera heldu ginen Ezkurdira asteburu eder bat pasatutakoan gelditzen den satisfazioarekin, mendi interesgarri bi igota, toki paregabe bat ezagututa eta mila izarreko hotel baten gaua pasatuta.

Punta Escarraren azkeneko metroak

Midi D'Ossau Punta Escarratik


Eneko Olea Oregi

ESQUÍ DE MONTAÑA

PRACTICAS DE INICIACIÓN

Día 22 de Enero de 2006.
Tomaron parte un total de 24 esquiadores, de los cuales 20 eran socios del Alpino Tabira.
Día soleado que permitió practicar las técnicas de ascenso en las laderas de orientación sur del San Lorenzo.
A destacar el buen nivel de esquí de casi todo el grupo, lo que permitió una ágil progresión.

Días 28 y 29 de Enero de 2006.
Tomaron parte un total de 17 esquiadores, de los cuales 15 eran socios del Alpino Tabira.

Día 28 (sábado). Nevaba en Durango y después de consultar el estado de las carreteras partimos hacia el Pirineo Navarro. En la zona de Urkiola tuvimos nieve, pero el resto de la carretera estaba completamente limpia. De víspera ya nos habían informado que en la zona de Belagua no había entrado el temporal. Incluso lucía el sol.

Desde refugio de Belagua ascendimos por la ladera sur del Lakora de 1877 mts., donde practicamos las técnicas de ascenso hasta que las condiciones de visibilidad nos lo permitieron. Cuando entró la niebla y el

termómetro marcaba -7ºC decidimos descender.
En el albergue del Camping Asolaze practicamos la utilización del ARVA.

Día 29 (domingo). Se cumplieron las malas previsiones, el temporal llegó. Amaneció nevando y la carretera de acceso a Belagua no estaba en buenas condiciones. Con este panorama nos pareció prudente no intentar subir.
Terminamos la jornada con una comida en grupo en el "Aterpe" de Urkiola.

22 TRAVESIA DE ESQUI DE MONTAÑA
22. MENDI ESKI ZEHARKALDIA

Sábado 25 de Febrero de 2006.
Un año más los pronósticos no eran buenos.
Con buena visibilidad y una temperatura de -7º C el comité organizador inició el marcado del recorrido por la zona prevista. Del parking de la estación de Astún (1710 m.) y en dirección norte remontamos el barranco de Escalar por su parte izquierda hasta llegar al ibón de Escalar. Seguimos ganando altura hasta alcanzar los 2290 m. ("antecima" del Pico de los Monjes).
Descenso por la vertiente francesa. Como la travesía coincidía en fecha y en parte del recorrido del *X Rally Esquí - Alpinismo "Valle del Aragón"* aprovechamos sus marcas para el descenso.
Comenzó a nevar y la visibilidad iba reduciéndose. Continuamos marcando el ascenso hasta el Collado de Astún (2189 m.). Como apenas teníamos visibilidad y continuaba nevando, decidimos desestimar la ascensión al Pico de Mala Cara.

El descenso hasta el parking lo hicimos por el barranco de Astún.

Tras la recepción de los participantes y la asignación de los alojamientos, se ofreció una cena; todo ello en el "Refugio Sargantana" de Canfranc - Pueblo (Huesca).
Se explicó a los participantes como había sido el marcado del recorrido y que opciones teníamos para la jornada del día siguiente.

Domingo 26 de Febrero de 2006.
No paró de nevar en toda la noche, y como estaba anunciado amaneció nevando.
Después de ponernos en contacto con el Grupo de Rescate e Intervención en Montaña de la Guardia Civil de Jaca y comentarles nuestros planes, comenzamos la travesía siguiendo las marcas. Partimos del parking con una temperatura de - 2º C. Continuaba nevando pero teníamos buena visibilidad. Alcanzamos la "antecima" del Pico de los Monjes y descendimos por la vertiente francesa.
